

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Kontxita Etxebeste Etxabeguren

*Oiartzun,
Gipuzkoa
(1915-2015)*

Aurkibidea



Biografia



Oiartzungo elizaren atzean zegoen Kinkirrinkiñenea etxean jaio zen. Aita eta ama ere oiartzuarrak zituen. Aita arotza zen eta Erretereria-Oreretako "Real Compañía Asturiana de Minas"-en egiten zuen lan. Kontxitak esaten duenez, familia pobrea zen beraiena. Zazpi senide ziren, bera ahizpetan gazteena eta mugituena, herriko gauzetan parte hartzea gustatzen zitzaiona. Gaztetan antzerkia egiten aritu zen, 36ko gerra hasi baino lehen. Euskaraz, hainbat antzezlan prestatu zituzten eta baita jendaurrean antzeztu ere, horietako zenbait emanaldi Donostiako Kursaal zaharrean. 36ko gerrak giro hura hautsi zuen. Kontxitaren anaia, Txomin Etxebeste, fusilatua izan zen. Familia abertzalekoa izaki, oso momentu gogorak igaro zituztela kontatzen du eta horretaz hitz egitea oso zaila egiten zaio. Erreteriar batekin ezkondu zen eta Erretereria-Oreretan bizi izan dira. Bi seme-alaba izan zituzten.

Zintak

OIA-092

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Data:** 2010-06-18
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com